



**ATAUN EGIN**  
ELKARREKIN  
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA.



**AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA**  
SAN MARTIN. ATAUN, 2023/10/09

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hogeita bost lagun: 18 emakume eta 7 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi (Alkatea); Ion Fontenla (Ingurumena, Nekazaritza eta Abeltzaintza zinegotzia), Maider Irastorza (Kultura eta Euskara zinegotzia) eta Mikel Dorronsoro (Hirigintza zinegotzia)
Lantalde teknikoa	Hektor Espin, Eñaut Muñoa (Astazaldi), Julen Landa (Gislan), Ibai Alcelay (Ekolur), Irati Iturbe eta Inesa Ariztimuño (Aztiker)



## 1- SARRERA ETA KOKAPENA

---

Martin Aramendi alkateak egin du saioaren irekiera prozesua kokatu eta helburuak gogoraraziz.

## 2- AURREDIAGNOSIAREN AURKEZPENA

---

Saioaren gaiari heldu aurretik, HAPO proiektuaren lan talde teknikoko ordezkariak, Hektorrek eta Julenek aurreko bi saioen (Herritarrak eta ongizatea; Lurraldea eta ingurumena)) datu eta gako nagusiak laburtu dituzte.

Ondoren, aurkeztu dute ANTOLAMENDUari dagokionez aurre diagnostiko teknikoaren laburpena. Hiru zatitan egin dute aurkezpena:

- Diagnostikoa
- Gakoak
- Erronkak

*Ikus. ANTOLAMENDUA. AURKEZPENA*

## 3- PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

---

Aurkezpenaren ondoren, bi erronda ireki dira herritarren inpresioak, iritziak eta proposamenak jasotzeko. Jarraian jasotako balorazio eta ekarpenak:

### ENTZUNDAKOAREN BALORAZIOA

#### ZERK DEITU DIZU **ATENTZIOA**?

- Lotura: beharrezkoa da eta ezinbestekoa herria egoteko. Bizikletan, gurpil aukietan... Hurrek bakarrik jaitsi ahal izateko.
  - *Hirigune planteamenduak (San Martin – San Gregorio). Bide egokia eta ezinbestekoa.*
  - *Errepidea birplanteatu beharra (egia da gehiegi baldintzatzen duela herriko funtzionamendua eta herritarren lasaitasuna)*
  - *Horrenbeste etxe huts egonda, nola ez da ezer egin orain arte haiek eskuragarri jartzeko? Nik neuk arazoak izan ditut alokairuan etxebizitza aurkitzeko orduan. Familia batek alde egin du duela 2 hilabete) ez zuelako alokairuko etxebizitzarik topatu. Sekulako arazo dago.*
  - *San Martin eta San Gregorio lotzeko ideia ezinbestekoa iruditu zait.*
  - *Uste baino etxebizitza gehiago dago hutsik, irtenbide bat eman behar zaie.*
-

### ZERK DU **GARRANTZIA** ZURETZAT?

- Arazo demografikoari aurre egitea: ataundarrek non bizi nahi duten Ataunen galdetu
- 3. Adineko jendea gora: 3. Adineko zaintzari begira erantzun bat (ekipamendu bat...). Zer zerbitzu berri behar diren aztertu
- Ondarea ezagutaraztea (bertan ere ezezagutza handia baitago). Bistaratu, baloratu. Herri barruan zein kanpoan
- Zerbitzuei dagokionez, bailara ikuspegia txertatu: behar bada ezin dira zerbitzu guztiak eduki herri guztietan. Eskualdeari begiratu eta osatu eskualdeak eskaintzen ez duena
- Parke naturala: helburu batekin izendatu zen eta ondoren bertako baserritarrak eta herritarrak ez dira zaindu: bertakoek parkea zaindu bai (eta honek ezartzen dituen muga handien baitan jardun) baina ezerren truke. Nola eutsi horri? Aldundiak dirua jaso du horren truke, eta diru hori ez da Ataundarrengana iritsi, eta ataundarrak ari dira mantentzen.
- *Herriko gazteei herrian eustea. Etxebizitzak behar dira.*
- *Herriko nukleoan errepidea desbideratzea asteburuetan behintzat*
- *Umeei begira ekipamendu gehiago edo hobekak jartzea (parkeak, ur txorrotx parkea...)*
- *Taberna edo ostatu bat botika zaharrear. Oso leku egokia da eta bizia emango lioke plazari. Ez dago herrian beste tabernarik umeak eta lasai ibiltzeko tokirik duenik*

### AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

#### ZURETZAT, ZEINTZUK DIRA ATAUNEK DITUEN **ERRONKA NAGUSIAK?**

- Zer egingo dugu gure ondare naturalarekin? (biodibertsitatea,...). NATURA-k leku garrantzitsua izan behar du hartzen den norabidean
- Energetikoki burujabe izateko urratsak eman: kontzientzian eta bitartekoetan. Elikaduran burujabetza erronka ere bada
- Baserriak. Gainbehera egoeran. Baserriak hustu ahala basoak sasiz betetzen. Ondarea, etxebizitza aukerak... Zailtasunak: eraikina salbatu baina nola eta zer hipotekatu? Ez dago adostasuna baserrien etorkizuna nola. Arriskuak: espekulazioa; etxebizitzetan partitzen bada, jada ez da baserria izango, baserria eraikina bai, baina lurra eta hauen ustiaketa ere bada
- Nola egin gazteak hemen errotu eta bizimodua egin nahi dezaten
- *Etxebizitza. Etxe hutsa erabilgarri jartzeaz gain, etxebizitza berriak eraiki behar dira, ez etorkizunean, jada berandu gabiltza*
- *Herri giroa. Herri giroa sustatu behar da, herria elkartu, ez ekintza berezietan bakarrik, edozein momentutan. Horretarako beharrezkoa ikusten dut plazan TABERNA jartzea, eraikitzea (Botika etxean). Herria sakabanatuta dago, plaza bizi bat behar da, Euskal Herriko edozein herritan ikusten den plaza edo herrigune bizia. Hori osatu edo tabernarekin lortuko da. Goierrik Hitzak duela aste batzuk zekarren artikuluak zioen bezala Herriko ostatuak herri txikietakoa arnas gune dira, herriaren BIHOTZ.*
- *Gazteak herrian gelditzea nahi baldin badugu, etxebizitza eta herri giroa bermatu behar dira.*
- *Errepidea desbideratzea beharrezkoa ikusten dut, lasaitasuna eta segurtasuna bermatzeko.*
- *Kalean, plazan egoteko aterpea behar da, neguan babesteko eta udan itzala izateko.*
- *Eskolako parkea. Berritzea ezinbestekoa da, lotsagarri dago*
- *Etxebizitzak bermatu gazteentzat*

- *Adineko jendearentzat ekipamenduak*
  - *Umeentzako parke egokiak, aterpe edo itzal gunek, ur txorroen parkea*
  - *Herriko ostatua plazan, bizia emateko eta jendea lasai elkartzeko*
  - *Asteburuetan nukleoa peatonalizatu*
- 

#### **ERRONKA HORIEI AURRE EGITEKO, ZER LANDU BEHAR DUGU HERRI BEZALA?**

- Lan talde teknikitik azpimarratzen da proposamen eta prospekzio teknikoa egiteak ez duela bermatzen herri proiektua. Horrela, herri proiektuak ataundarren parte izan behar duela iradoki du, eta ataundarrek herri proiektuaren parte izan behar dutela ere.
  - Gogoeta eta iradokizun horrekin lanketaren beste dimentsioa agerian geratu da.
- 

*\*Letra etzanean jaso dira idatziz jasotako ekarpenak*

#### **4- ITXIERA**

---

Ixteko, eskerrak eman eta hurrengo deialdiak eta proposamenak zein iradokizunak egiteko bideak gogorarazi dira: web gunea, postontziak eta URRIAREN 28KO EGUN BETEKO JARDUNALDIA. Saioa bukatutzat eman da iluntzeko 20:15etan.

**Ataunen, 2023ko urriaren 9ean.**